



**ZARAUZKO H.A.P.O.EKO 1-2 OR-HIRIGUNEAREN ZABALGUNEKO AREAREN
HIRI BERRIKUNTZAKO PLAN BEREZIA.**

F DOKUMENTUA "JARDUKETA PROGRAMA"

2011-ko maiatza



F DOKUMENTUA: "JARDUKETA PROGRAMA"

- I. SARRERA.**
- II. JARDUKETA PUBLIKOEN PROGRAMAZIOA.**
 - II.1. LEHENENGO LAURTEKOA.**
 - II.2. BIGARREN LAURTEKOA.**



I. SARRERA

Plan Berezia osatzen duen dokumentu honen edukia, eremuan egin beharreko inbertsio publikoa eta probatua koordinatzea da batez ere, horretarako ordenamendua burutzeko epeak eta lehentasunak finkatuz.

Hala ere, aipatu beharra dago Planak Administrazio Publiko desberdinetarako izendatzen dituen konpromisoak "bete beharrekoak ez direla", Plan horiek haiek espresuki onartuak ez dira.

Ikuspegi honetatik, "Ekonomia-Finantzazko Azterketa" dokumentuan esaten denera itzuliz, konpromiso horiek aipatu administrazioek Plana burutzeari dagokionez beren gain hartu ez dituztenez, dokumentu honek planean aurreikusten diren ekimenei buruzko "asmo-aitorpen" baten antz handiagoa du, aipatutako administrazioak aurrekontuei dagokienez nolabait lotuko dituen dokumentu arau-emaila batena baino.

Programazioa lau urteko bi epealditan banaturik egin beharko dela, burutzeko lehentasunak edota aurreikusten diren urbanizazio-eragiketak materialki burutzeko epeak zehaztuz, horrekin batera administrazio publiko desberdinek beren finantzaketa-konpromisoak bete beharko dituzten epeak zehazki adieraziz beti ere.

Dokumentu hau, horrexegatik hain zuzen, Planean lanak burutzeko aurreikusten diren lehentasunen eta inbertsioen definizio bat bezala areago hartu behar da, eragiketa horien denboran zehar izan behar duten programazio egiazko bat baino, programazio horretara "hurbiltzen" ahalegintzen bada ere.

Egokia litzateke, beraz, Plana burutzeko aukerak zehaztea eta justifikatzea, administrazio desberdinetatik espero izatekoak diren baliabideen arabera, gauza jakina baita zenbait esku-hartze publiko burutzea, espazio publikoaren ingurugiroa hobetzeko egiten diren hirigintzako esku-hartzeak batez ere ekimen pribatuaren katalizatzaile eta bultzagarri izaten direla zalantzarik gabe, ekimen pribatuak bera bizi den ingurumena hobetuz doala eta balioa irabazten duela ikusten duelarik.

Ikuspegi honetatik, eremuan egiteko aurreikusita dauden urbanizazio lanak, eta ekipamendu komunitarioan egiteko diren beste jarduketa edo esku-hartze batzuekin batera, arearen ingurumena hobetzeko eta kualifikazio berri bat emateko esku-hartzeak dira denak, ia soil-soilik Administrazio Publikoak finantzatuak.



II. JARDUKETA PUBLIKOEN PROGRAMAZIOA.

Inbertsio publikoaren programazioa, lau urteko bi epetan banatua, Planak aurreikusten dituen eta Ekonomia eta Finantza Azterketan islatzen diren jarduketei dagozkien kostuen balorazioan oinarrituta egiten da.

Hala eta guztiz ere, ez dira zehaztu epeak etxebizitza-eraikinetan egiteko aurreikusita dauden jarduketak burutzeko (administrazio publikoak partez diruz lagundu ditzakeen lanak dira gehienbat, gai honi dagokionez indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen eskakizunak betetzen badira betiere), gauza jakina baita eraikin pribatueta "obligaziozko" epeak jartzea asmo-adierazpen bat baizik ez dela izaten, horrelako jardueretan izan ohi den errealitatearekin zerikusirik ez duena. Horregatik, programazio honi dagozkionetarako, ez dira halakotzat agertzen birgaikuntza pribaturako (batez ere etxebizitzaren eta ekipamendu pribatuaren birgaikuntzarako) laguntza gisako kostuak, arrazoi berdinagatik (Q etxe-saileko patio barruan aurreikusitako ekipamenduarena ezik), ikusita izan ez direnak planearen E.F.A.-n.

II.1. LEHENENGO LAURTEKOA.

II.1.1. Programazioa:

- . Proiektuak eta prestaketa-jarduerak

2011. urtearen zehar Plan Bereziari behin betiko onarpena eman ondoren, arean oraindik ere urbanizazio berria egiteko duten eremuen "urbanizazio-proiektuak" erredaktatzen eta tramitatzen hasi beharko lirateke. Lan hori, une honetan bertan hastekoa litzatekeena, 2012. urtean zehar burutu ahal izango litzateke.

- . Urbanizazio esku-hartzeak

Lehenengo laurteko honetarako "Arrantzaleen Begiratokia"-ren ingurunea urbanizatzea aurreikusten da, baita Manzisidor k., Gipuzkoa k., Salegi k., Zigordia k., Santa Klara k., eta Foruen k.

- Komunitate ekipamenduaren eraikuntzako esku-hartzeak

Lehen aldi honetan ez da aurreikusten inolako zuzkidura ekipamendu egitea.

**II.1.2. Jarduketa publikoen ekonomia balioztatzea:**

URBANIZAZIO ESKU-HARTZEAK	LEHENENGO LAURTEKOA
URBANIZAZIO OROKORREKO LANAK	
1.Z/Amezti K.- Ipar K./ Marinelen Begiratokia- Kulixka K.- Marinel K.- Bixkonde K. - Baneru K.	338.635,44€
3.Z/Manzisor Kalea	52.548,29€
4.Z/Gipuzkoa Kalea	332.969,23€
5.Z/Salegi Kalea-Zigordia Kalea	370.542,20€
8.Z/Santa Klara Kalea	76.565,18€
11.Z./Foruen Kalea-Iturribide Kalea	376.290,50
PROIEKTUAK ETA BESTEAK	204.277,00
Guztira URBANIZAZIO ESKU-HARTZEAK	1.751.827,55€

ESKU-HARTZEEN BALORAZIO OROKORRA	LEHENENGO LAURTEKOA
URBANIZAZIO ESKU-HARTZEAK	1.751.827,55€
Guztira ESKU-HARTZE PUBLIKOAK	1.751.827,55€

II.2. BIGARREN LAURTEKOA.**II.2.1. Programazioa:****- . Proiektuak eta prestaketa-jarduerak**

2015. urtearen bukaera aldetik aurrera, arearen oraindik ere urbanizazio berria egiteko duten eremuen "urbanizazio-proiektuak" erredaktatzen eta tramitatzen hasia aurreikusita dago. Lan hori, 2015an zehar hastekoa litzatekeena, 2016. urtean zehar burutu ahal izango litzateke.

- . Urbanizazio esku-hartzeak

Bigarren laurteko honetan, zenbait kale eta espazio libreen berrurbanizazioa aurrakusten da, besteen artean, azpiegitura edota ekipamendu baten tokialdaketa edo egitearekin lotuta daudenak: Nafarroa k., Geltoki bidea, eta Iturribide plaza.

- Komunitate ekipamenduaren eraikuntzako esku-hartzeak

Bigarren laurteko honetan Zuzkidurazko Bizitokietarako ekipamendu baten eraikuntza aurrakusten da (bere erabilera zehazteko zain), baita horren lurzoruazpiko aparkaleku batena.

**II.1.2. Jarduketa publikoen ekonomia balioztatzea:**

URBANIZAZIO ESKU-HARTZEAK	BIGARREN LAURTEKOA
2.Z/Nafarroa Kalea	486.340,72€
6.Z/Gaztainpe Kalea	89.172,82€
7.Z/Geltoki Bidea Plaza	346.294,40€
9.Z/Bizkaia Kalea	34.224,40€
10.Z/Iturribide Plaza	294.900,27€
PROIEKTUAK ETA BESTEAK	165.123,10€
Guztira URBANIZAZIO ESKU-HARTZEAK	1.416.055,71€

KOMUNITATE EKIPAMENDUAREN ERAIKUNTZAKO ESKU-HARTZEAK	BIGARREN LAURTEKOA
ZUZKIDURAZKO BIZITOKIETARAKO EKIPAMENDUA/APARKALEKUA	4.152.750,00€
Guztira ERAIKUNTZAKO ESKU-HARTZEAK	4.152.750,00€

ESKU-HARTZEEN BALORAZIO OROKORRA	BIGARREN LAURTEKOA
URBANIZAZIO ESKU-HARTZEAK	1.416.055,71€
KOMUNITATE EKIPAMENDUAREN ERAIKUNTZAKO ESKU-HARTZEAK	4.152.750,00€
Guztira ESKU-HARTZE PUBLIKOAK	5.568.805,71 €

Zarautzen, 2011-ko maiatzan

Sin.: Rosario Marijuán de la Asunción
Arkitektoa

Sin.: José Erquicia Olaciregui
Arkitektoa